

ODON de **APRAIZ**
IKASTOLA

INGURUMENA ZAINTZEN
ODON DE APRAIZEN

Ekosistema gaia landu eta gero, gure ingurumena zaindu eta iraunkorra izan dadin, guztion parte hartzea beharrezkoa dela argi daukagu gure ikastolan, izan ere, ingurunea zaintzeko hartu daitezken ohitura onen inguruan hausnartu dugu.

Horregatik, konpromiso batzuk hartu ditugu:


- Geletako argiak itzaltzen ditugu, erabili behar ez direnean.

- Ura zaindu eta ez dugu alferrik galtzen. Komunetako txorrotak matxuratuta aurkitzen baditugu, arduradunari abisatzen diogu.

- Materialak arduraz erabiltzen saiatzen gara.

- Hondakinak berrerabili eta birziklatzen ditugu...

Gaur egun hondakinak dira ingurumenari arazo gehien sortzen dizkiotenak. Baina zabor gehiena **berrerrerabili** egin ahal da edo, bestela, **birziklatu** egin daiteke. Honela egin ezkerro, ingurumenari laguntzeaz gain, zabor gutxiago sortzen dugu. Arreta jarri, kontatuko dizuegu gure proiektua.



NOLA HASI ZEN?

2005ean ikastolan oso erabilgarria ez zen toki batean baratza martxan jarri genuen.

Gure baratza



da

d

Guztiok maite dugu honen inguruan
proiektu desberdinak egiten
ditugulako.

NOIZ?

Asteazkena fruta eguna da: hamaiketako orduan fruta hartzen dugu.



ZER EGITEN
DUGU
HONDAKINEKIN?
Lehen,
zakarrontzira
botatzen genituen.
Orain, berriz...,
jasotzen ditugu,
konposta egiteko.



ZERTARAKO?

Tittaren txokoko landareak
hobeto elika daitezzen sendo eta
sano hazteko.





Gero,
gelakideok lau
taldetan
elkarten gara
eta peto bana
jantzita patorra
ateratzen gara
gure lana
betetzera.



Peto gorriak frutaren azalen
bila joaten dira. Horretarako lau
kubo eramaten dituzte eta haien
barruan jendeak botatzen ditu
hondakinak.



Peto gorridunek lana bukatzen dutenean horidunena hasten da, jasotako hondakinak balantzekin pisatzen ditugu, gero apuntatzen dugu kantitatearen kontrola ondo eramateko



Behin guzti hau eginda, peto berdedunarena da hurrengo pausoa. Haiek Tittaren txokoan dauden konpost kutxetara eraman behar dituzte hondakinak.



Eta, azkenik, peto urdinen betebeharra, hau da, ontziak garbitu, toki guztiak txukunak geratu direla aztertu eta balorazioa egitea



Bi urte daramagu konposterak
betetzen eta adituen arabera
kalitate handiko konposta lortu
dugu, beraz oso pozik gaude.

Badaukazue lorategi edo
baratzarik?

Bada, **anima zaitzte** eta egin
zeuek ere zuen ongarri
propioa!!!